2014ko ebaluazio txostenean, klima aldaketari buruzko adituen gobernu arteko taldeak argi eta garbi adierazi zuen klima sistemaren aldaketa ukaezina dela, eta oso litekeena dela horren arrazoi nagusia giza jarduerak sortutako berotegi efektuko gas isurketak izatea. Adituek nabarmentzen dute egungo klima aldaketak eta haren ondorioek mendeak iraungo dutela, nahiz eta orain berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa murriztu. Aitzitik, isurketak geldituko ez balira, klima sistemak mundu mailan izango lituzkeen aldaketak are larriagoak izango liriateke, eta sistema sozioekonomikoetan eta naturaletan eragin larriak, orokorrak eta atzeraezinak izateko arriskua handitu egingo litzateke.

Nahiz eta etorkizuneko perspektibak nazioartean hartzen diren erabakien eta ibilbide orrien arabera egon, horiek konpromisoen eta tokian tokiko erabakiekin batera joan behar dute.

2015ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia - KLIMA 2050 onartu zuen. Erkidegoko estrategia horrek Autonomia Erkidegoko administrazio desberdinen artean

erakundeen arteko koordinazio mekanismoak sustatzea aztertzen du, delako estrategiaren ekimenak ezartzeko eta jarraipena egiteko, eta ezartzen du foru aldundi bakoitzak aldaketa klimatikoari buruzko bere politika eta programak finkatu behar dituela, Garapen Jasangarriaren Lurralde Estrategien bitartez. Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak klima aldaketari eta eraginkortasun energetikoari buruzko politika eta programak ezarri nahi ditu, garapen jasangarriaren arloko lurralde politikaren testuinguruan; halaber, guztiz bat egiten du, batetik, Europar Batasunaren araudiak eta irizpideek ezarritako izpirituarekin eta mandatuarekin, baliabideen erabilera eraginkorrari dagokionez, eta, bestetik, 2050ean ekonomia hipokarboniko lehiakorra izatera zuzendutako bide-orriarekin.

Horretarako, Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko Gipuzkoa Klima 2050 estrategia idatzi eta kontrastatu du. Foru Aldundiak Estrategia horretan definitzen duen klimaren arloko gobernantza ereduaren barruan, eta politika horiek ahalbidetu eta sustatzeko aurreikusten diren kudeaketa organoen artean (9.2.2. ekintza), Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa dago.

2.- JARDUKETA ETA KUDEAKETA IRIZPIDEAK

Fundazioa izaera publikoko entitatea da, eta bere eginkizuna da, berariaz, Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari laguntzea (art.3. fundazioaren helburuak), Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko estrategia garatzeko, Gipuzkoako Gobernantza Klimatikoan eta Energetikoan ezarritakoari jarraituz. Zehazki, hauek dira fundazioaren funtzioak:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiako Ingurumeneko Zuzendaritza nagusia laguntzea, klima aldaketak Gipuzkoan dituen eraginak aztertzen, horien behaketa egiten eta kontrolatzen.
- b) Lan egitea diagnosi zuzen bat lortzeko, eta eragile askoren ekintza dinamizatzea klima aldaketa arintzeko eta inpaktura egokitzeko.
- c) Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko strategiaren barruan ematen diren aurrerapenen ebaluazioa eta jarraipena egiten dela bermatzea.

Fundazioak jarduera hauek gauzatu ahal izango ditu, besteak beste:

- a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan eta nazioarte mailan garatzen ari diren ekimen guztiak jasotzea, hautatzea eta haiekin konektatzea, Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategiaren garapenaren zerbitzura jartzeko helburuarekin, Gipuzkoako ingurumenaren, pertsonen eta enpresen iraunkortasunerako, eta lan bateragilea eginez lurraldearen trantsizio sozio-ekologiko atzerazinean.
- b) Klima aldaketak ingurune fisikoan, ingurune naturalean, ingurumen kalitatean, ohituren garapenean, jarduera sozio-ekonomikoetan eta herritarren pertzepzioan duen eragina behatzea, aztertzea, sensorizatzea eta kontrolatzea
- c) Aipatu Estrategian eta bere bederatzi helburuetan zehaztutako klima aldaketaren aurkako borrokarako talde eragile bat sortzen, koordinatzen eta dinamizatzen laguntza ematea. Topagune moduan erabili ahal izango da unibertsitate, ikertzaile, klima aldaketaren aurkako borrokaren alorreko enpresa eta administrazioen artean, besteak beste, hautatze irizpideak emanez, berrikuntzak eta startups-ak sortzea sustatuz eta erakarriz, eta trantsizioa bultzatuko du ekonomia zirkularrerantz, Circular Recycling HUB-en bidez, eta energia eredu berrien trantsiziorantz, Renewable Energy HUB (Smart Grids, Smart Cities) bidez.
- d) Eratu eta gaiaren inguruan herritarren informazio eta heziketa zentro izatea, lortutako ezagutza eta informazioa herritarrei ezagutarazi eta helaraziz era grafiko eta ulerkorrean, Ingurumen Monitorizazio Sistema bidez.
- e) Informazioa eta dokumentazioa biltzea eta Foru Aldundia informatzeko eta aholkuak emateko gomendioak eta irizpideak lantzea, dagozkion erabakiak hobeto har ditzan eta Estrategia horren, azterketa, jarraipena eta kontrolerako.
- f) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak garairekin zerikusia dutelako gomendatzen dituen jarduera guztiak.

Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

- a) Publizitatea eta gardentasuna, Fundazioaren xede eta jardueri buruzko informazio nahikoa emanaz, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu, oinarritzat hartuta Garapen Jasangarriaren eta Ekonomia Berdearen printzipioak, eta, horien barruan, Ekonomia Hipokarbonikoarena (BEG isurien murrizpena) Ekonomia Zirkularrarena eta Tokiko Ekonomiaarena.
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta Fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirturena ere.
- e) Etengabeko lankidetzaren leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.
- f) Ondarea eta errentak Fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrira.
- g) Genero berdintasuna eta euskararen babesa.

Fundazioaren antolaketa, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea bere estatutuetan ezarritakoari doituko zaie, eta, hala dagokionean, Patronatuak onartutako barne araubideko

3.- HIRUGARREN JARDUERA-FASEA BULTZATZEKO ETA GARATZEKO ERREKERIMENDUA

Fundazioaren lehenengo faseko (2018-2021) 3 lan ardatz nagusiei jarraituz, hau izango da 2020ko jarduketako programa:

1. Klima Aldaketaren Gipuzkoako Dokumentazio Zentroa eta Behatokia Atal hau zeharkako lerro gisa eta lerro nagusi gisa garatuko da, GAABErentzat orohar erabilgarria. Bere barruan, nagusiki lerro hauek garatuko dira:

- a) BEG isurien eta klima aldaketak lurraldean duen eraginaren monitorizazioa eta jarraipena egitea.
- b) Arriskuen kartografia eta azpiegitura sare zaugarrien monitorizazioa eguneratzea eta hobetzea.
- c) Lurraldeko aldaketa klimatikoaren inpaktuen jarraipena eta monitorizazioa, aldaketa klimatikoaren zaintza sarea Gipuzkoan.
- d) Estrategiaren adierazle taularen jarraipena.
- e) Aldaketa Klimatikorako Aliantza: mundu mailako eta estatu mailako ikerketa zentroen sarea, behategiak eta gainontzeko Aldaketa klimatikoaren aurkako eragileen sarea osatu.
- f) Aldaketa Klimatikoaren Dokumentazio Zentroa.

2. Aldaketa klimatikoaren inguruko proiektuen bizkortzaileak, egitasmo berritzaileen diseinua eta garapena azkartzeko Gipuzkoako Ekonomia berdearen trantsizioan: Circular Recycling Hub eta Renewable Energy Hub. Baliabideen erabilpenean eraginkorra den Ekonomia hipokarbonikoa, BEG isurketetan baxua, Ekonomia Zirkularra eta Bertako ekonomiari laguntzen diona. Honela kontsumitzaileetatik gertu dagoen ekonomia izango da oinarritzko produktuen ekoizpena gertuko den aldi berean. Sail hauek GAABEren ekintza lerroak garatzeko erabilgarriak izango dira (hauek ere Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren alorreko plangintzen pean egongo dira ondorengo gaietan):

- a) Ekonomia Zirkularraren sustapenean Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari laguntza eman.
- b) I+G+B sustatzea erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanerako negozio-ereduetan; zehazki, Gipuzkoan ekonomia berderako bidea egitea bultzatzen dutenetan.
- c) Aldaketa klimatikoaren aldeko gipuzkoar ekonomia sustatzeko tendentzia eta egitasmoen bilduma, azterketa eta hautaketa (baren eta kanpoko benchmarking).
- d) Eragileen clusterren sorkuntza eta dinamizazioa.
- e) Proiektuka antolatzen diren eragile anitzetako lan taldeak osatu eta dinamizatu (foru departamentuak, tokiko eta eskualde mailako erakundeak, Eusko Jaurlaritza, sozietate publikoak, enpresa pribatuak, unibertsitateak, hezkuntza profesionaleko zentroak, zentro

- f) teknologikoak, aberasteko asmorik gabeko erakundeak, beste herrialdetako erakundeak, et abar)
- g) Emaizten balidaziorako habian jarriko dira proiektu frogatzaileen diseinu, pilotaje eta garapena. Proiektu hauen denbora errentagarritasuna eta emaitzen itzulkin kontu ematea egingo da (balio publiko zein pribatuan)
- h) Sare publikoa zein pribatuak barneratu bitartean erreplikapenaren eta finkaketaren sustapena. Zentroaren rola arragoarena izango da, garaipen formulak lortu arte, baina fase honetatik haratago ez ditu interesik adieraziko.
- i) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, energia berriztagarrien sorkuntza garapenerako autokontsumoaren sustapena egingo du.
- j) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, eredu energetikoa aldatzera bideratuta dagoen tokiko ehun ekonomiko berritzailearen sustapena landuko du.
- k) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, ibilgailuen erregai fosilei hautabideak bilatzen dituzten energien trantsizioan ekintzak sustatu.
- l) Gipuzkoan garapen eredu hipokarbonikoa gauzatu ahal izateko irtenbide zehatzak eta baliagarriak diren ekintzak garatu. Hain zuzen ere ekonomia zirkularrean eta birziklapenean, autokontsumorako eta auto sorkuntzarako energia berriztagarrien ezarpenean, beti ere Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen plangintzen ara behera eta honekin elkarlanean.

3. Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan informazioa eta herritar hezkuntza. Sail hau, Gipuzkoako sisteman fenomeno honek dauzkan efektuak ezagutu nahi dituzten kontsultei eta bisitei (birtualak/ zuzenekoak, norbanakoak zein taldekakoak) bideratuta dago. Garatu beharreko programak profil anitzetako hartzaileei bideratuko dira: tekniko/zientifikoak, hiritargoa, enpresa eta medioak. Erabili beharreko hizkuntzak euskara eta erdera izango dira, nahiz eta mami batzuetan ingelera eta frantsesa erabiltzeko aukera izan. Aldez aurretik, GAABEaren ondorengo ildo estrategikoei zerbitzua emango diete:

- a) Aldaketa klimatikoaren inguruko hezkuntza eta komunikazio plana definitu eta garatu.

- b) Fundazioaren goiburuari zein gainontzeko sailen emaitzen hedapenari zerbitzua emango dio. Sail honen lana ez da behategikoarekin nahastuko, honek ikerkuntzara eta dokumentazioari bideratuta baitago, bere izaera zientifiko/teknikoa dela eta era beste eragile mota batzuei zuzenduta baitago.
- c) medio eta gizarte pertzepzio, nahiz azterketa soziologikoak burutzea: ingurumen kalitatearen asebetetze adierazle, azterna ekologikoaren kalkulua eta helburu sentsibilizatzailea duten hainbat baliabideen kontsumoa adierazten duten erakusleak.
- d) Zentroaren aldaketa klimatikorako hezkuntza planaren diseinua eta garapena.
- e) Zentroaren komunikazio planaren diseinu eta garapena.
- f) Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren inguruko eragile laguntzaileen eta baliabide pedagogikoen banku basea sortu.
- g) Zentroaren baliabide pedagogikoak eta komunikaziorako baliabideak sortu.
- h) Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren inguruko hiritargoaren hezkuntza programa diseinatu eta garatu: ekitaldien urteko agenda, baliabide birtualen katalogoa.
- i) Komunikazio programa: Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren gaurkotasuna Gipuzkoan eta medioen arreta.
- j) Webgunearen eta sare sozialen sorkuntza eta mantenua.
- k) Gipuzkoako aldaketa klimatikoaren Ikasgela birtuala zein zuzenekoaren kudeaketa.
- i) Banakako zein taldekako praktika onen garapena: gipuzkoar hiritargoa aldaketa klimatikoaren aurrean.
- m) Herritar arreta bulegoa (zuzenekoa, telefonikoa eta webgunekoa)
- n) Jendea hartzeko bulegoa (presentziala, telefonikoa eta web/birtuala)

4.- 2021eko HIRUGARREN URTEKO EKINTZA PLANA

Beraz, eta aurreko paragrafoetan azalduetakoa kontuan hartuta, bigarren urtean egin beharreko jarduketa nagusiak honakoak izango dira:

1. 2021-2024 urteetarako ekintza-planak garatzea, fundazioaren eguneroko kudeaketetarako orientazioa eta zentzua emango dituen plan estrategikoaren arabera.
2. Naturklima klima-aldaketan erreferente gisa eta Ekonomia Berdearen (Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa) motor gisa kokatzeko Fundazioaren Komunikazio Plana zabaltzea.

3. Gipuzkoako klima-aldaketaren behatokiaren jardueren garapena:
 - a) Arintzearen eta egokitzearen arloetan ezarritako adierazleen koadroaren analisisa, datuak aztertzea eta interpretatzea.
 - b) Gipuzkoako klima-aldaketaren gaineko inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko txostena egitea.
 - c) Gipuzkoako BEG isurien inbentarioari buruzko urteko txostena egitea.
 - d) Kostaldeko itsasertzeko Behatokiaren ekintzak, 2021. urteari dagozkionak:
 - i. Klima-aldaketaren adierazleen behaketa eta jarraipena.
 - ii. Agertokiak, inpaktuak eta KAri egokitzea. Inpaktuak, kalteberatasuna eta egokitzea.
 - iii. Inpaktuari, kalteberatasunari eta egokitzapenari buruzko txostenak egitea, honako hauetan oinarrituta: itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholde-arriskuak, muturreko olatuen ondoriozko inpaktuak lehorrean, hondartzak eta hareatzak atzeratzea, itsasertzeko habitaten galera eta erresilientzia, itsas ekosistema berrantolatzea, itsas baliabideen galera eta aukerak, arrisku sozioekonomikoak arrantzaren, turismoaren, portuaren eta osasunaren sektoreetan.
 - e) EIT CLIMATE KICren *Pioneers Into Practice* programaren anfitrioiak: 2020ko esperientziaren ondoren, Behatokiaren jardueran laguntzeko aditu bat hartzeko hautagaitza aurkeztea berriro.
 - f) Klima Aldaketaren arloan erreferentziazko ekitaldi bat antolatzea Gipuzkoan inpaktuaren eta kalteberatasunaren txostenaren aurrerapenekin eta ondorioekin bat etorritik.
4. Circular Recycling HUBeko jardueren garapena.
 - a) Naturklimak enpresa-sektorearekin eta ekosistema ekintzailearekin duen lotura eta aliantzen sorrera indartzea.

- b) Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularren ekimenak indartzen, hobetzen eta sendotzen laguntzea, ekintza hauekin:
- i. IZNrekin lankidetzan, Gipuzkoan Ekonomia Zirkularreko jarduerak eta ekimenak egiten dituzten enpresa-eragileak identifikatzea, eta nabarmenenak balioan jartzea eta zabaltzea, inspirazio gisa balio izan dezaten.
 - ii. IZNri laguntzea GK Recycling-en kudeaketa estrategikorako plana birdefinitzen, Gipuzkoako berrerabileraren eta birziklatzearen esparruan enpresa-sektorearen covid ondoko beharrak eta egoera oinarri hartuta.
 - iii. GK Recycling-en ikusgaitasuna eta posizionamendua indartzea eta hobetzea (tokiko mailan, estatuan eta nazioartean) , Ekonomia zirkularrekin konprometituta dagoen Gipuzkoako enpresa-talde gisa.
 - iv. GK Recycling dinamizatzea eta bazkideei laguntzea planteatu den estrategia berrian oinarrituta eta Naturklimaren estrategian planteatutako Ekonomia Zirkularreko berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko eta bizkortzeko ekintzen ildotik.
- c) Recycling Lab Zirkularra garatzea, Ekonomia Zirkularren esparruan Gipuzkoan gara daitezkeen enpresa-ideien eta negozio-aukeren banku gisa. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira:
- i. Gipuzkoako hondakin industrialen korronteei buruzko informazioa eguneratzea eta hondakin kritikoak hautatzea, ekintzailtzako eta berrikuntzako proiektuen input gisa aprobeitzatzeko, eta lurraldean biofindegi baten premia potentziala aztertzeke.
 - ii. Gipuzkoako bioekonomiaren ibilbide-orria prestatzen hastea:
 - iii. 2020an egindako benchmarking-ean sakontzea, Ekonomia Zirkularren esparruan arrakasta izan duten negozio-eredu arrakastatsuak identifikatzeko eta Ekonomia Zirkularrean interesa duten enpresa gipuzkoarrekin kontrastatzeko eredu horiek Gipuzkoako berezitasunetara egokitzeko duten potentziala.
- d) Naturklimaren estrategia eta metodologia definitzea Circular Recycling HUBekin, ekonomia zirkularreko enpresa eta proiektu berriak sortu, bultzatu eta bizkortzeko, bai industria/enpresa-mailan eta bai ekintzailtza-mailan.

- e) Lurraldeko enpresak babestea eta dinamizatzea Ekonomia zirkularreko negozio-aukerak identifikatzeko, bai eta esparru horretako berrikuntza-proiektuak asmatzeko eta garatzeko ere: networking guneak, parte-hartze bidezko prestakuntza, arrakasta-kasuen hedapena, negozio-aukera berriak, lantaldeak, 'joint-venture'ak, etab.
 - f) Ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailatza sustatzeko ""Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren II. deialdia.
 - g) Ekonomia zirkularren arloko inplementazioan eta berrikuntzan ezagutza hedatzea, enpresarekin/industriarekin eta Gipuzkoako ekosistema ekintzailearekin lotutako prestakuntzekin.
5. Renewable Energy HUBen jarduerak garatzea: Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-gomendioetan oinarrituta.
 6. Harremanak eta aliantza estrategikoak ezartzea eragile pribatuekin eta funtsezko erakunde laguntzaileekin toki-, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan.
 7. Toki, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan KAREN eta Ekonomia zirkularren foro eta sareetan parte hartzea.
 8. Berrikuntza-proiektuen parte-hartzea eta garapena (batez ere nazioarteko bokazioa dutenak, Europako proiektuetan).
 - a) Finantzaketa lortzeko eta nazioartekotzea indartzeko proiektu europarrak sustatzea.
 - b) Ekonomia Zirkularreko Institutu Nazionalarekin (INEC, Frantzia) lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan ekintzak garatzea. Europako proiektuak garatzera orientatua.
 - c) LIFE Urbanklima2050
 - d) ECOFISH
 - e) H2020 GD klima-erresilientzia: ATSI
 - f) H2020 GD airearen kalitatea

9. Naturklimak Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzkiduraren eta Europako proiektuen finantzaketaren ordezkotako diru-iturri gisa eskainiko dituen zerbitzuen katalogoaren definizio zehatza.

2021 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

KLASIFIKAZIO EKONOMIKOA		2021
1 Kapituluua: Langileria Gastuak		350.283,64 €
2 Kapituluua: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak		632.600,56 €
211 Konponketa, mantenimendua etta artapena (alokariua)		65.485,00 €
220. Bulegoko materiala		1.200,00 €
221. Hornidurak		7.500,00 €
222. Komunikazioak		3.000,00 €
226. Beste gastu batzuk		23.300,00 €
227. Dietak eta lokomozioa		1.500,00 €
230. Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak		530.615,56 €
1. 2021-24 urteetako ekintza-planak garatzea		
2. Fundazioaren Komunikazio Plana zabaltea		
3. Behatokiaren jardueren garapena		
4. Circular Recycling HUBeko jardueren garapena		
5. Renewable Energy HUBen jarduerak garapena		
6. Harremanak eta aliantza estrategikoak ezartzea eragile eta erakundeekin		
7. Karen eta Ekonomia Zirkularraren foro eta sareetan parte harzea		
8. Berrikuntza-proiektuen parte-hartzea eta garapena		
9. Fundazioaren zerbitzuen katalogaren definizio zehatza		
GASTU KORRONTEEN AURREKONTUA	GASTU TOTALA	982.884,20 €
345. Zerbitzu prestazioak		100.000,00 €
420. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Transferentziak		682.884,20 €
439. Kanpoko transferentziak (Europako Proiektuak)		130.000,00 €
470. Enpresen pribatuen transferentziak		70.000,00 €
DIRU SARRERA KORRONTEEN AURREKONTUA	DIRU SARRERA TOTALA	982.884,20 €
KORRONTE EMAITZA	TOTALA:	0,0 €
6 Kapituluua: Inbertsio errealak		25.000,00 €
610. Eraikinaren beste egokitzapen gastu batzuk		2.000,00 €
640. Altzariak eta gainerakoak		6.600,00 €
650. Informazioa prozesatzeko ekipoak		16.400,00 €
7 Kapituluua: Kapital Transferentzia		25.000,00 €
75. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Transferentzia Inbertsiorako		25.000,00 €
DIRU SARRERA GUZTIEN AURREKONTUA	DIRU SARRERA TOTALA	1.007.884,20 €
GASTU GUZTIEN AURREKONTUA	GASTU TOTALA	1.007.884,20 €

6. 2021EKO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

6.1 Gastu aurrekontua

Naturklimaren gastu garrantzitsuak honako kontzeptu hauei dagozkie:

Langileria gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak. konponketak, mantenimendua eta artapena (alokairua). Bulego materiala, hornidurak, komunikazioak, beste gastu batzuk, dietak eta lokomozioa.

Gastuen aurrekontua guztira: 1.007.884,20€

6.1.1 Langileak

Guztira, 5 langile aurreikusten dira..

Langileen gastua, guztira: 350.283,64€

6.1.2 Gastu arruntak eta ondare zerbitzuen gastuak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 632.600,56€ dira guztira. Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen da:

Lurrak, eraikinak. Konponketa, manteni mendua eta artapena Mikeletegi Pasalekua 65 zenbakia, B2 eraikina, 0. solairua

Alokairuen gastua, guztira: 65.485,00€

Bulegoko materiala Bulegoko hainbat materialen eta suntsikorren kostuak.

Bulegoko materialen gastua guztira: 1.200,00€

Hornidurak. Hornigai arruntak sartzen dira, hala nola ura edo argindarra, erregaiak eta produktu basikoak.

Hornigaien gastua guztira: 7.500,00€

Komunikazioak. Telefonía finkoa, mugikorra eta Interneteko konexioa, bideoak, argazkiak.

Komunikazio gastua guztira: 3.000,00€

Hainbat gastu: antolakuntza eta manteni mendu orokorrerako (aholkularitza fiskala, kontu eta laborala, notaritza, et abar)

Hainbat gastu guztira: 23.300,00€

Dietak eta lokomozio gastuak: atal honetan, zentroetako langileen joan-etorriak, dietak eta antzerakoak sartzen dira.

Dietak eta lokomozio gastuen gastua guztira: 1.500,00€

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak. Helburu fundazioanarak burutzeko Naturklimako taldeak egiten dituen lanez gain, fundazioaren ardatzetan langile tekniko espezializatuen laguntza izango du. Aurreikusten diren arloak honako hauek dira:

Aholkularitza/ikuskaritza: Atal honetan kanpo talde espezializatuen kontratazioa sartzen dira, hala nola arloko ikerketak burutzeko, zein laguntzarako txostenen lanketa edo datuen ingeniariatza, eta abar

Marketina eta publizitatea: komunikazio planaren bitartez Fundazioaren posizionamendurako laguntza lanak, markaren hobetzea, ekitaldi eta jardunaldien antolaketa, et abar.

Eragile giltzarri eta erakunde laguntzaileekin lan sareak garatzea.

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanen gastua guztira: 530.615,56€

6.1.3 Inbertsio errealak

Eraikinaren beste egokitzapen gastu batzuk. Egokitzapenerako beste elementu batzuk

Eraikinen beste egokitzapen gastu batzuk: 2.000,00€

Altzariak eta lanabesak: bulegoetan erabiltzen diren altzariak

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealak: 6.600,00 €

Informazioa prozesuetarako ekipamenduak Fundazioa operatiboa izan dadin eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren inbertsioak jasotzen dira.

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 16.400,00€

6.2 Sarreraren aurrekontua.

Naturklimak 4 sarrera iturri nagusi ditu. Gehiengoduna iturri publikoetatik dator. Bigarrena, Europear dirua, hirugarrena tasak eta beste zerbitzuak eta laugarrena, babesak.

Sarreraren aurrekontua, guztira: 1.007.884,20 €

Finantzaketa publikoa: Gehienbat Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusitik dator.

Gipuzkoako Foru Aldundiko transferentzia arruntak : 682.884,20€

Gipuzkoako Foru Aldundiko inbertsio transferentziak: 25.000,00€

Europear Proiektuak: Europar proiektuen deialdietan partaidetzaren bitartez.

Europar proiektuen sarrerak: 130.000,00 €

Tasak eta beste zerbitzuak: konkurrentzia gabeko erregimenaren bitartez emandako zerbitzuen diru sarrerak, laguntza, atzerrirako misioetan euskarria, et abar.

Enpresei zerbitzuak emateagatik sarrerak: 100.000,00€

Babesleak: enpresa babesleen bitartez lortzen diren diru sarrerak

Babesleen bitartez lortzen diren sarrerak: 70.000,00€